

# **EUSKAL XAKE FEDERAKUNTZAKO BATZAR NAGUSIA.**

**2006.go otsailaren 5ean burutu zen Debako Kultur Etxean (Gipuzkoa). Ohi bezala, batzarkideen presentzia eskasa izan zen. Miguel Ángel Muela Lehendakariak zuzendu zuen bilera.**

## **2005. URTEKO BALANTZE EKONOMIKOA.**

2005. urteko balantze ekonomikoa onartua izan zen.

Gastua 57.371 eurokoa izan zen.

Gastu orokorretan 9.234'90 euro erabili ziren. Langile administratiboen gastuak laguntzeko 2.450 euro izan ziren. Batzarrean komentatu zen horretan oso diru gutxi erabiltzen dela: Gaizki ordaindutako lana dela, alegia.

Ohiko xake ekitaldietan 21.005'35 euro erabili ziren. Euskadiko Banakako Txapelketak 5.806 euroko gastua ekarri zuen. Taldekako Euskal Ligak 3.700'20 eurokoa. Gazte eta kadete mailetako Txapelketek 2.974'15 eurokoa.

Goi mailako lehiaketetan 21.459'75 euro erabili ziren. Sustapenerako eta eliteko Nazioarteko Torneoak 11.405 euro eraman zuen. Espainiako Txapelketetan parte hartzea 2.848 euroko gastua izan zen. Euskadiko selekzioen neurketek 2.305 eurokoa.

Irakaskuntza gastuetan 2.568 euro erabili ziren.

Sustapen eta dibulgazioko gastuetan 3.103 euro erabili ziren.

Diru sarrerei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren laguntza da azpimarragarriena: 31.128 euro.

Gainontzeko 26.243 euro bide ezberdinetatik lortu ziren: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Federazioen ekarpena (8.961 euro), dirulaguntza bereziak (3.000 euro euskal selekzioentzat, 2.000 euro Elgoibarko Torneoarentzat eta 2.000 euro Bergarako aparteko dirulaguntza) eta abar. Erakunde ezberdinetatik 9.910 euro erdietsi ziren.

Beraz, balantze orekatua izan zen.

Hala ere, Lehendakariak azaldu zuenez, balantze hau ez da erabat erreal, bertan oraindik egin beharreko gastuak eta kobratu beharreko diru sarrerak bilduta daudelako. Ohikoa da hori kontabilitatean.

## **2006. URTERAKO AURREKONTUA.**

2006.go urterako aurrekontua onartu zuen Batzarrak.

Aurreikusitako gastua 64.550 eurokoa da (% 12'51 gehiago).

Gastu orokorretan, 9.300 euro erabiliko omen dira.

Ohiko xake ekitaldietan, 20.800 euro.

Goi mailako lehiaketetan, 27.800 euro.

Irakaskuntza gastuetan, 3.200 euro.

Sustapen eta dibulgazioko gastuetan, 3.450 euro.

Aurreikusitako diru sarrerak 64.550 euro dira, aurrekontua orekatzeko behar bezala.

Dirulaguntzetatik 45.000 euro etorriko omen dira; lizentzietatik 9.850 euro; beste diru sarreretatik, 9.700 euro.

## **BESTELAKO EZTABAIDAK.**

Txapelketa ofizialen eta torneoen egutegia onartu zen, datak kasu askotan erabat zehaztu gabe badaude ere.

Miguel Ángel Almansak Euskal ELOa berriz abian jartzeko egindako lana azaldu zuen. Batzarkideek zoriondu zuten bere lana.

Euskal ELOaren beharraz mintzatu zen Batzarrean. FEDA eta FIDE ELOa soilik erabiliko balira, diru asko ordaindu beharko litzateke, torneoak konputatzeko ordaindu behar delako. Gastu hori saihesteko eta euskal xakelarien indarren neurgailua edukitzeko beharrezkoa omen da Euskal ELOa. Hala azaldu zuen Nicola Lococok, bederen.

Monitoreek lizentziagatik 30 euro ordaindu beharko dituzte (15 Euskal Xake Federakuntzari eta 15 lurraldeko Federazioari). Horrela, lehentasuna izanen dute Euskal Xake Federakuntzaren lanetarako. Diru kopuru xumea bada ere, eztabaidagai izan zen, batzarkide batzuk kontraprestazioa ez baitzuten argi. Lococok azaldu zuen Federazioen lana, monitoreak trebatzeko.

Goizeko hamar t'erdia inguruan hasita, ia arratsaldeko hirurak arte luzatu zen bilera. Ondoren, luncha dastatu zuten azken momentura arte geratu zirenek.

**2006-2-5.**